

HIZKUNTZA-PAISAIA **EUSKARATZEKO DIRULAGUNTZAK** **2024**

DIRULAGUNTZAK BAZTANGO ELKARTEEN, MERKATARITZA ETA OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN EDOTA ENPRESEN HIZKUNTZA PAISAIA (kanpoko eta barruko errotuluak, irudi korporatiboa eta web guneak) EUSKARAZ EDO EUSKARAZ/GAZTELANIAZ PARATZEKO.

Baztango Udalak euskararen gizarte ezagutza handitzeko eta erabilera sustatzeko konpromiso irmoa du. Izan ere, euskara Baztango hizkuntza izanik ere, hainbat gizarte esparrutan toki txikia du eta egoera ahulean dago.

Horregatik, Baztango Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantzak Udaleko zerbitzu guztietan ez ezik udalerriko gizarte bizitzan ere euskararen erabilera piztea eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea ditu xede.

Ahalegin horren barnean udalerriko hizkuntza paisaian eragitea dago eta helburu horretara zuzendurik dago honako dirulaguntzak ematea. Dirulaguntza horiek arautzeko Baztango Udalak honako baldintza eta irizpide hauek onartu ditu 2024ko maiatzaren 16an Tokiko Gobernu Batzordean.

OINARRIAK

1- Xedea

Deialdi honen xedea da errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskalduntzeagatik entitateei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Dirulaguntza hauen arrazoia diren jarduerak euskararen gizarte erabilera sustatu eta hedatzea izanen dute berriazko helburu.

AYUDAS ECONÓMICAS PARA LA EUSKALDUNIZACIÓN DEL PAISAJE LINGÜÍSTICO 2024

AYUDAS PARA PONER EN EUSKERA O EUSKERA/CASTELLANO EL PAISAJE LINGÜÍSTICO (rotulación exterior e interior, imagen corporativa y páginas web) DE ASOCIACIONES, DE ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES Y HOSTELEROS O DE EMPRESAS DE BAZTAN.

El Ayuntamiento de Baztan está firmemente comprometido con el aumento del conocimiento y la promoción del uso social del euskera, ya que aun siendo el euskera la lengua de Baztan, su presencia en muchos ámbitos sociales es escasa y se encuentra en una situación vulnerable.

Es por ello que la Ordenanza reguladora del uso y fomento del euskera en el ámbito municipal de Baztan tiene por objeto incentivar el uso de la lengua vasca y garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía no solo en todos los servicios municipales sino también en la vida social del municipio.

En ese esfuerzo se entiende el impulso del euskera en el paisaje lingüístico y al citado objetivo está dirigida la concesión de ayudas para la colocación en euskera de elementos de rotulación del ámbito comercial. El Ayuntamiento de Baztan, en sesión celebrada por la Junta de Gobierno Local el 16/05/2024, ha aprobado las siguientes condiciones y criterios para la regulación de esas ayudas.

BASES

1- Objetivo

El objetivo de la presente convocatoria es regular y tramitar las ayudas que el Ayuntamiento de Baztan concederá para la euskaldunización de elementos de rotulación, imagen corporativa y páginas web de los establecimientos del municipio. Las actividades razón de estas ayudas tienen como objeto propio el fomento y ampliación del uso social de la lengua vasca.

2- Dirulaguntzaren zenbatekoak eta gaiak

Dirulaguntza hauek 2024. urteko aurrekontuen dirulaguntzen sailaren kargura joanen dira, zehazki, merkataritzako errotuluak euskaraz paratzeko dirulaguntzen deialdira. Horretarako 2.000€ko aurrekontua dago.

Dirulaguntzak errotulazio elementu bakoitzari aplikatuko zaizkio.

Aurrekontuetan aurreikusi den diru-kopurua, behar den epean eta behar den moduan aurkeztu diren eskaeren artean zatituko da, deialdiko baldintzak betetzen dituzten artean betiere. Zatiketa euskara hutsezko eta ele biko kategorietara aurkeztu diren eskaeren proportzioaren arabera egingen da.

Errotulazio elementu hauei dagokie dirulaguntza:

2.1 Errotuluen kasuan:

- a. Kanpoko errotuluei.
- b. Toldoei, errotulu funtzioa egiten badute.
- c. Erakusleihoetako errotulazioari.
- d. Establezimenduaren barruko errotulazioari, jendaurreko gunean kokatuz gero.
- e. Atarien ondoko profesionalen plakei.
- f. Ibilgailu komertzialen errotulazioari.

Euskara hutsean idatzitako errotulazio elementuek sortutako gastuaren %50 bitarteko dirulaguntza jasoko dute, gehienez 500 €.

Euskaraz eta erdaraz idatzitako errotulazio elementuek, betiere euskarari lehentasuna emanik, egindako gastuaren % 25 bitarteko dirulaguntza jasoko dute, gehienez 250 €.

2.2 Irudi korporatiboaren kasuan:

- a. Kartazalak.

2- Cantidad y concepto de las ayudas

Estas ayudas irán a cargo de la partida de subvenciones de los presupuestos para el año 2024, concretamente a la convocatoria de ayudas para colocar en euskera los rótulos comerciales. La partida cuenta con una dotación de 2.000 €.

Las ayudas se aplicarán a cada elemento de rotulación.

La dotación prevista en los presupuestos se repartirá entre las solicitudes realizadas en el plazo y modo establecido, siempre y cuando éstas cumplan los requisitos. El reparto se realizará en modo proporcional al número de solicitudes que se hayan presentado a la categoría de rótulos en euskera y rótulos bilingües.

Los gastos contemplados en estas subvenciones son los correspondientes a los siguientes conceptos:

2.1 Rótulos:

- a. Rótulos exteriores.
- b. Toldos, siempre que cumplan la función de rótulo.
- c. Rotulación de escaparates.
- d. Rótulos interiores, siempre que se coloquen en espacios de atención al público.
- e. Placas indicativas de actividades profesionales instaladas junto a la puerta.
- f. Rotulación de vehículos comerciales.

Los rótulos redactados en euskera recibirán una ayuda de hasta el 50 % del gasto originado, con un máximo de 500 €.

Los rótulos redactados en euskera y otra lengua, siempre que al euskera se le dé prioridad, recibirán una ayuda de hasta el 25 % del gasto originado, con un máximo de 250 €.

2.2 Imagen corporativa:

- a. Sobres.

- b. Paper menbreteduna.
- c. Bisita-txartelak.
- d. Identifikazio-zigilua.
- e. Produktuak biltzeko papera.
- f. Poltsak, kutzak.

- b. Hojas con menbretes.
- c. Tarjetas de visita.
- d. Sello de identificación de la entidad.
- e. Papel envoltorio.
- f. Bolsas, cajas.

Elementu hauetako testua euskara hutsez jarriz gero, sortutako gastuaren %50 bitarteko dirulaguntza jasoko dute, gehienez ere 120 €.

Los elementos redactados en euskera recibirán una ayuda de hasta el 50 % del gasto originado, con un máximo de 120 €.

2.3 Webguneen kasuan:

- a. Euskara hutsezko webguneak. Sortutako gastuaren %50 bitarteko dirulaguntza emanen da, gehienez ere 350 €.
- b. Webgune nagusia beti euskaraz irekitzen da eta erabiltzaileari aldiro, hala nahi badu, hizkuntzaz aldatzeko aukera ematen dio. Sortutako gastuaren % 50 bitarteko dirulaguntza emanen da, gehienez ere 250 €.

2.3 Páginas Web:

- a. Páginas Web redactadas solo en euskera. Recibirán una ayuda de hasta el 50 % del gasto originado, con un máximo de 350 €.
- b. Web con página principal monolingüe en euskera que ofrece la opción del cambio de lengua. Recibirán una ayuda de hasta el 50 % del gasto originado, con un máximo de 250 €.

Dirulaguntza jaso ondoren, webgunea euskaraz izaten segitzeko konpromisoa hartu behar da. Ez da onartuko webgunea berriz erdara hutsean paratzea.

Una vez subvencionada la página web, se adquiere el compromiso de que dicha página siga en euskera. No es válido volver a poner la página sólo en castellano.

3- Onuradunak

Oinarri hauen bidez arautzen diren dirulaguntzak eskatzen ahal dituzte helbide soziala Baztanen daukaten pertsona fisiko edo juridikoek, baita bere jarduera ekonomikoa Baztango udalerrian dauden lokaletan egiten dutenek ere.

3- Beneficiarios

Podrán ser beneficiarios de esta subvención las personas físicas y jurídicas con domicilio social en Baztan y las que desarrollen su actividad económica en locales de Baztan.

3.1- Pertsona edo entitate onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

3.1- Las personas o entidades beneficiarias han de cumplir los siguientes requisitos:

- a. Zergen ordainketa eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean edukitzea.
- b. Baztango Udalarekin ordaindu gabeko zorrik ez izatea.
- c. Errotulua euskaraz idaztea, zuzen eta egoki. Euskarazko testuek piktogramak edo irudiak izan ditzakete lagungarri.

- a. Estar al corriente de los pagos tributarios y/o de las obligaciones con la Seguridad Social.
- b. No tener ninguna deuda pendiente con el Ayuntamiento de Baztan.
- c. Redactar el rótulo en euskera, correcta y adecuadamente. Los textos en euskera podrán ir acompañados de pictogramas o ilustraciones.

d. Errotulua ele bitan idatziz gero euskarari lehenasuna eman behar zaio. Lehenasuna honela ulertuko da:

- errotuluko testuak dituen hitz gehienak euskaraz egotea. Hori ebazteko bi elementu hauek ez dira aintzat hartuko: 1) izen bereziak (antropónimo, toponimo nahiz markak); eta 2) euskaraz eta gaztelaniaz berdintsu ahoskatzen diren eta soilik grafia desberdina duten hitzak (erraterako: arkitektura, informatika, enpresa...).
- hizkuntza bat goitian eta bertzea behegian paratuz gero, euskara goikoa izatea;
- hizkuntzak elkarren alboan paratuz gero, euskara ezkerrekoa izatea;
- euskarazko testuaren letraren neurria edota lodiera erdarazkoarena baino handiagoa izatea;
- euskarazko testuaren kolore kontrastea erdarazkoarena baino hobea izatea.

3.2- Onuradunek errotulazio elementuak euskaraz paratzeko gastua deialdirako eskabideak aurkezteko epea akitzen den urte naturalean egina izan behar dute.

3.3- Ez da diruz lagunduko:

- a. Izen bereziren bat (jabearen izena edo abizena, edo toponimo bat) baizik ez duten errotuluak. Langintza edo jarduera profesionalaren adierazleari begiratuko zaio.
- b. Euskaraz gaizki idatzirik dauden edo oker gramatikalen bat duten errotuluak. Hizkuntza zuzentasun eta gramatikaltasun irizpideak Euskaltzaindiak ezarritakoak dira.
- c. Beharrezko Udal baimenak ez dituzten

d. En el caso de que el rótulo esté redactado en bilingüe, que el texto en euskera tenga prioridad. La prioridad se entenderá de este modo:

- que la mayoría de las palabras del texto del rótulo estén en lengua vasca. Para determinar lo anterior no se tomarán en cuenta estos dos tipos de elementos: 1) los nombres propios (antropónimos, topónimos o marcas); y 2) aquellas palabras cuya pronunciación en euskera y castellano es similar y solo difieren en la grafía (como por ejemplo, arkitektura, informatika, enpresa...).
- si se coloca una lengua arriba y otra abajo, que el euskera sea la de arriba;
- si se colocan las lenguas una al lado de la otra, que el euskera sea la de la izquierda;
- que el tamaño y/o el grosor de la letra del texto en euskera sea superior al de la otra lengua.
- que el contraste de color del texto en euskera sea mejor que el de la otra lengua.

3.2- Los beneficiarios habrán de haber realizado el gasto derivado de la colocación de los elementos de rotulación en euskera en el año natural en el que acaba el plazo para presentar las solicitudes de la convocatoria.

3.3- No recibirán ayuda:

- a. Los rótulos en los que solo aparezca un nombre propio (nombre o apellido del / de la dueño/a, o un topónimo). Se tendrá en cuenta la denominación del ámbito o la actividad profesional.
- b. Los rótulos que estén mal escritos o que tengan alguna incorrección gramatical. Los criterios de corrección y gramaticalidad serán los de Euskaltzaindia, Real Academia de la Lengua Vasca.
- c. Las rotulaciones de aquellos elementos que no cuenten con los correspondientes

elementuetako errotulazioak.

3.4- Baztango Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, errotulazioa euskaraz paratu nahi dutenei itzulpen eta aholkularitza zerbitzua doan eskainiko die.

3.5- Udalak eskatzaile bakoitzari behin bakarrik emanen dio errotulazio elementu jakin bat euskaraz paratzeko diru-laguntza. Bere aldetik, dirulaguntzaren onuradunak konpromisoa hartuko du diruz lagundutako errotuluak hortik aitzina hala izaten jarraitzeko, inoiz erdarazko errotulua paratzeko aukera guztiz bazterturik.

4- Deialdiaren publizitatea

Deialdi hau honako hauetan iragarriko da: Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Baztango Udalaren webgunean eta udaletxeko iragarki-oholean.

5- Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea **2024ko irailaren 30ean, 14:00etan** akituko da.

6- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute Baztango Udaletxeko erregistroan:

- a. Dirulaguntza eskabidea, honekin batera doana, behar bezala beterik.
- b. IFKren fotokopia.
- c. Fakturaren fotokopia eta ordainketaren egiaztagiria, biak. (2023ko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30 bitarteko faktura datarekin)
- d. Errotuluaren edo irudi korporatiboaren argazkia edo webgunearen esteka.
- e. Onuradunak zergen ordainketa eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean dituela ziurtatzen duen agiria.
- f. Aitorpena, administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako diru-laguntza ororen

permisos municipales.

3.4- El Ayuntamiento de Baztan, mediante su Servicio de Euskera, ofrecerá servicio de traducción y asesoramiento gratuitos a aquellas personas que deseen colocar la rotulación en euskera.

3.5- El Ayuntamiento concederá a cada solicitante ayuda para colocar un determinado rótulo en euskera solo una única vez. Por su parte, el/la beneficiario/a se comprometerá a que el rótulo en euskera por el que ha recibido ayuda se mantenga así, sin poder revertir a la redacción en otra lengua.

4- Publicidad de la convocatoria

La presente convocatoria se anunciará en el Boletín Oficial de Navarra, en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios de la casa consistorial.

5- Plazo de presentación de solicitudes

*El plazo para la presentación de solicitudes concluye a las **14:00 horas del 30 de septiembre de 2024.***

6- Documentación a presentar

Los solicitantes habrán de presentar la siguiente documentación en el registro del Ayuntamiento de Baztan:

- a. *Instancia de solicitud de la subvención (se adjunta) debidamente cumplimentada.*
- b. *Fotocopia del CIF.*
- c. *Fotocopia de la factura y el justificante del pago, ambos documentos. (con fecha entre el 1 de octubre de 2023 y el 30 de septiembre de 2024)*
- d. *Fotografía del rótulo, imagen corporativa o link de la página Web.*
- e. *Documentación justificativa de hallarse al corriente, en el momento de la solicitud, en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.*
- f. *Declaración de toda ayuda solicitada o recibida de cualquier administración pública*

gainekoa, deialdi honen xedearekin zerikusia duena. Eskaerak ebazteke edo ebatzita dauden adierazi beharko da. Azkenengo kasu horretan kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da.

Hori dena zuzenean edo 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea ezartzen dituenak aurreikusitako beste prozeduraren bat erabiliz egin ahal izanen da. Hona helbide postala eta gainerako datuak:

Baztango Udala
Foru plaza, zk.g.
31700 Elizondo

7- Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun natural emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

8- Ebazpena

Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko erabakia Baztango Udaleko alkate-udalburuak edo berak eskuordetzean ahalmen hori eman dion organoak hartuko du. Erabaki hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie.

9- Dirulaguntzaren ordainketa

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean pagatuko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren; banku transferentziaz eginen da eskatzaileek adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

o entidad privada en relación con el objeto de la presente convocatoria. Habrá de explicitarse si esas ayudas están por resolver o ya resueltas. En el caso de estar ya resueltas, se adjuntará una copia de la resolución de concesión.

Todo ello directamente o mediante otro procedimiento previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. La dirección postal y otros datos:

*Baztango Udala
Foru plaza, s/n
31700 Elizondo*

7- Subsanación de errores de las solicitudes

Si se viera que en la documentación presentada por los solicitantes existe algún error o falta algún documento, se les concederá un plazo de diez días naturales para corregir los errores o completar la documentación. Si pasado ese plazo no se ha subsanado el error o completado la documentación, se entenderá que el/la solicitante renuncia a la solicitud.

8- Resolución

El acuerdo de adjudicación de la ayudas de la presente convocatoria lo tomará el alcalde-presidente del Ayuntamiento de Baztan o el órgano en el que ésta delegue. Ese acuerdo se les trasladará a todos los interesados.

9- Abono de las ayudas

Las ayudas se abonarán en pago único tras haberse tomado el acuerdo de concesión, mediante transferencia bancaria al número de cuenta facilitado por los solicitantes.

10- Bateragarritasuna

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira bertze edozein erakunde publikok zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

11- Dirulaguntzen itzulketa

Onuradunek dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko dute ondoan azaltzen diren kasuetako baten bat gertatzen bada:

- a. Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- b. Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c. Diru-laguntzaren xedea den jarduerak, errotulazio elementuak euskaraz paratzeak, bertze diru-laguntzaren bat izan badu eta gehiegizko finantzaketa gertatzen bada.
- d. Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

12- Arau-haustek eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, xedatutakoak aginduko du.

13- Datuen babesa

Eskatzaileen datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

14- Aplikatuko den araudia

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Toki-Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, aplikatuko dira.

10- Compatibilidad

Estas ayudas son compatibles con cualquier otra ayuda de administración pública o entidad privada que se hayan dado con el mismo fin, siempre y cuando no exista sobrefinanciación.

11- Devolución de las ayudas

Los beneficiarios deberán devolver toda o parcialmente la ayuda recibida en el caso de concurrir alguna de estas situaciones:

- a. Recibir la ayuda sin cumplir los requisitos requeridos, por alguna razón que se pueda atribuir al beneficiario.
- b. No presentar la documentación requerida en el plazo estipulado.
- c. Que la actividad subvencionada, colocar en euskera los elementos de rotulación, haya recibido otra subvención y exista sobrefinanciación.
- d. No aceptar u obstaculizar las verificaciones de obligada aceptación.

12- Infracciones y sanciones

En lo que respecta a las infracciones y sanciones, regirá lo determinado en Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

13- Protección de datos

Los datos de los solicitantes se tratarán según lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.

14- Normativa de aplicación

Para todo lo no previsto en esta convocatoria se aplicarán la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de Administración Local, y la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

15- Errekurtsoak

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahalko da, aukeran:

- a. Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiko administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

15- Recursos

Contra esta convocatoria, así como contra sus bases o contra las resoluciones administrativas que se tomen para el cumplimiento de éstas, podrá interponerse optativamente cualquiera de estos recursos:

- a. *Recurso de reposición, ante el mismo órgano municipal autor del acto, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente a la notificación del acto recurrido o su publicación.*
- b. *Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra, dentro del mes siguiente a la fecha de notificación.*
- c. *Recurso contencioso-administrativo, ante la Sala del mismo orden del Tribunal Superior de Justicia de Navarra en el plazo de dos meses, contado desde el día siguiente a la publicación o notificación del acto recurrido.*



BAZTANGO
euskara
ZERBITZUA



Baztango
Udala

Hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntza
Ayudas económicas para la euskaldunización del paisaje lingüístico
Eskabidea / *Instancia de solicitud*

Eskatzailearen datuak:

Izen-abizenak/ <i>Nombre y apellidos:</i>
NAN/DNI:
Helbidea/ <i>Dirección:</i>
Posta kodea eta herria/ <i>Código postal y localidad:</i>
Telefonoa:
Helbide elektronikoa/ <i>Dirección electrónica:</i>
Kontu korrontearen zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu)/ <i>Nº de cuenta corriente (IBAN, más los 20 dígitos):</i>
Hizkuntza-paisaia euskalduntzeko egindako gastua, guztira/ <i>Gasto total realizado en la euskaldunización del paisaje lingüístico:</i> _____ €

(Data eta sinadura/ *Fecha y firma*)



HIZKUNTZA-PAISAIA EUSKALDUNTZEKO DIRU LAGUNTZA: ZINPEKO AITORPENA AYUDAS ECONÓMICAS PARA LA EUSKALDUNIZACIÓN DEL PAISAJE LINGÜÍSTICO: DECLARACIÓN JURADA

Eskatzaileak hau aitortzen du/ El/la firmante, cuyos datos se indican, DECLARA:

- Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan / No hallarse inmersa en procedimientos de reintegro o sancionadores de subvenciones públicas
- Egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aitzinean dituenak, baita Baztango Udalarekin dituen zerga-betebehar guztiak ere / Hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con la Seguridad Social y el Ayuntamiento de Baztan.
- Helburua edozein izanik, dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei / Que ha solicitado subvención a las siguientes entidades:

ERAKUNDEA ENTIDAD	ZENBATEKOA CANTIDAD	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)
		SITUACIÓN (Sin resolver, resuelta pero sin cobrar o cobrada)

- Laguntza eskabide honez gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana. Que aparte de esta solicitud de subvención no ha solicitado ni recibido ninguna otra subvención para el mismo fin, concedida por otra entidad pública ni privada.
- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskabiderik eginez gero, Baztango Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain. Que en el caso de solicite ayuda para el mismo fin a otra entidad pública o privada, se compromete a comunicárselo al Ayuntamiento de Baztan.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du. / Y, para que así conste, firma la presente.

(Data eta sinadura)
(Fecha y firma)